

DONOSTIAK ENERGETIKOKI EFIZIENTEA DEN MUGIKORTASUNA BULTZATZEKO DEN AENEAS PROIEKTUA AURKEZTU DU BRUSELAN

AENEAS (Attaining Energy-Efficient Mobility in an Ageing Society) proiektu europar bat da Europarako Energia Adimendunaren programaren baitan (IEE) garatua, eta bere helburu nagusia da Energetikoki Efizientea den Mugikortasuna bultzatzea zahartzen ari den gizarte batean.

la hiru urtetan proiektuan modu arrakastatsuan elkarlanean aritu ondoren, AENEAS proiektua 2011ko maiatzean bukatuko da. Hori dela eta, pasa den apirilaren 8an, bukaerako Konferentzia egin zen Bruselan. Konferentzia horretan AENEAS proiektuan parte hartu duten bost hiri europarrek egindako jarduerak aztertu ziren.



Bukaerako konferentzian, halaber, Europar Batasuneko goi kargudunek hartu zuten parte, eta Donostiak oso zeregin garrantzitsua izan zuen bertan; izan ere, Donostiako Alkate Odon Elorzak mahai inguruan parte hartu zuen Europako beste pertsonalitate eta ordezkari batzuekin batera. Halaber, Donostiak mugikortasun jasangarriarekiko jardueri buruzko informazio grafikoa eskeintzeko stand bat jarri zuen.

Herrialdeen Batzorde Europarraren egoitza nagusian egin zen bukaerako konferentzian 150 pertsona baino gehiago egon ziren, herrialde europar askotako erakundeetatik bertaratuak, eta hantxe hainbat gai aztertu ziren, esaterako udalek oinezkoen guneeekin, bidegorrien luzerarekin edo pertsona nagusien artean garraio publikoen erabilera bultzatzearekin lotuta garatzen dituzten politikak eta gero eta zaharragoa den gizarte europarraren moduko gizarte batean jendeak duen ongizatea eta osasunak elkarrekin duten harreman zuzena.

Donostian AENEAS proiektuan parte hartu dute bai Donostiako Udaleko Mugikortasun Departamentuak, bai Donostiabusek, honako hauen laguntzarekin: RACVN, Euskal Kanpin Klub, eta hiriko hainbat erretiratu elkarte, hirian azken hiru urtetan oinez ibiltzea bultzatzeko eta autobusaren erabilera segurua bultzatzeko egin diren ekitaldi ugarietan aktiboki parte hartuta.



Konferentziaren aurretiko egunetan, Bruselan proiektuan parte hartu diren hirietako lan saioak egin dira. Horietan Donostiako Mugikortasuneko Departamentuko Andres Martinezek eta Donostiabuseko zuzendaria den Gerardo Lertxundik hartu dute parte.